

Nafarroako euskaran, Lapurdin derabiltzagun *aintzin*, *aintzina* eta *aintzindu* hitzen parrean. *Lan* - haatik ez da argi-errexera, nahiz hastapeneko *l* hori sortua dateken *lipizta* eta *lipiztari* hitzetan bezala, *inpiztu* eta *inpiztatzale* hitzen parrean.

Atsegin nuke bertze norbaitek hobeki argi baleza auzi xume hori.

Placido Mugica-k bere hiztegian *itsas-pirna* eta *anperna* izenkidetzat dauzka. Baionan *itsas-piru* "anatife" deitu oskondunari hobeki doako izentzat *anpernari* baino.

## "SINETSI" ADITZAREN ERABILKERA BATZUK AZTERTUZ

*"Sinesten dut Jainkoa" ala "Sinesten dut Jainkoagan"?*

*L. Villasante*

Duela aste pare bat eskura izan dut J. Kerexeta gure lagun eta langile bipilaren azken lana: *Eliz-Guraso Apostolikuak*. Liburu mardul eta gotorra. Edozeinek daki Testamentu Berrian azaltzen diren idazkien hurrengo, hauk direla kristautasunak utzi dituen lekukotasunik zaharrenak, behintzat gaur-egun ezagutzen direnetan. Hargatik dira hain ernagarri, hain baliotsuak, hain ezin utzizkoak kristau batentzat. Neure teologi eskoletan makinatxo bat aldiz aipatu eta erabili behar izan ditut hemen datozen izkribuetarik batzuk.

Orain, bada, lehenbiziko aldiz euskerara itzuliak ikusten ditut, liburu apain batean bilduak, Kerexeta euskaltzain laguntzailearen nekeei eskerrak. Zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiot, bihotz-bihotzez. Sarrera gisa Zaitegi jaunaren hitzaurre on bat dute idazkiok (1).

(1) KEREXETA-tar JAIME, *Eliz-Guraso Apostolikuak*; Bilbao, 1975.

Liburu hau eskuztatu dudanean, Kredoaren itzulpenaz topo egin dut, eta horrek eman dit lantxo huntarako aitzakia.

Bai.Kredoa da bertan euskeraturik azaltzen den lehen testua. Apostoluen Kredoa deitzen den hori, bada Apostolue-na berena ez izanda ere, zahar-zaharra dela ez du gaur nehoruk ukatzen.

Bizkaieraz dago Kerexetaren itzulpen hau. Eta hunela itzultzen du Kredoa, Codex Laudianus delakoari jarraikiz: Sinisten dot I. Jaungoiko Aita guztiz Aaltsua; II. Eta Jesukris-to, Aren Seme bakar, gure Jauna, (eta abar). Gero, berriz, IX. artikulua: (Sinisten dot) Espiritu Santua, (eta abar).

Ez da ez lehenbiziko aldia hunelako ahapaldiak irakur-tzen eta entzuten dituguna. Egia esango badut, neri gogor eta egoskaitz egiten zaizkit.

Mezako Kredoa ere hala jarri digute. Gipuzkoan erabil-tzen dugun itzulpenean hunela dator: "Sinisten det Jaungoiko bat bakarra, ageri diran eta ez diran guztiena. Sinisten det Jaun bat bakarra Jesukristo, Jainkoaren Seme bakar... Sini-ten det Espiritu Santua..." eta abar.

Aurtengo garizuman, 4. igandeko ebanjelioan, pasarte hau azaltzen zen: "Gizonaren Semea sinisten al duzu zuk?" (Jo 9,35).

Berriz ere esango dut. Jainkoarekiko, Kristorekiko eta Izpiritu Sainduarekiko sinesteaz ari garenean, hunelako esal-diek min ematen didate. Ez da hau euskaldun fededunak darabilen mintzatze legea. Eta ez euskera idatziaren tradi-zioan lekukoen ugaritasunaz eta kalitateaz gomendaturik datorkiguna ere.

Hauxe azaldu nahi nuke txostentxo hunetan. Laburzki, eta gaia bere hedadura guztian jorratu gabe. Aitorrerak bil-tzen hasiz gero, hemen emango ditudanak baino gehiago bil daitezkeela badakit. Eskumenean izan ditudan batzuk aipatu-ko ditut bederen.

L. Mitxelenak *Textos Arcaicos Vascos* delako liburuan Kredoa dakar euskaraz, Erroman B. Zannetto-k 1614. urtean agertu zuen bezala, *Symbolum Apostolorum diversis natio-num linguis* izeneko liburuan (1). Hunela dio, bada, euskaraz-

(1) TAV, 163 or.



koak: 1. Sinistasen dut Jaun poderosoaren vaytan... 2. Eta Jesu Christo vere seme unigenito, jaunaren vaytan... 8. Sinistasen dut Spiritu Sanduaren vaytan.

Urte batzuk geroago, 1648.ean, Aita Gamarrak idazten du erderaz Arantzazuko kondaira bat, oraintsura arte argitara gabe egon dena. Baina han datozen euskal esaldiak Aita Luzuriagak bere Paraninfo Celeste-n argitara zituen (2). Pasarte hau ere jasorik dago Textos Arcaicos Vascos delako hortan (3). Euskal umetxo batzuk akelarrera joan eta han zapoak gordetzen ibiltzen omen ziren. Hoiei, bada, Arantzazuko Ama Birjina agertu eta hunela mintzatu omen zitzaien: "Ene seme alaba chipi laztanchoac oficio citalori euci eguiçu/e/; biurtu zaitez/te/ Jaungoico poderosoagana christau onac becela, sinesten deçu/e/la Jesu Christo Criadore Redentore agan, eta aren fede santa chatolican, Eleiza ama santuac sinisten aguincent dituan moduan" (4).

Tartas-en Ontsa hiltzeko bidia egun hauetantxe bir argitaratu da. Han ere badator Kredoa. "Sinhesten düt Jenkoa aita omnipotentian, zeliaren eta lürraren kreazalian, eta Jesühristo haren seme bakhoitzian..." (5).

Peru Abarka XVIII. mende hondarreko euskal liburu famatu bat dugu, Mogel-ena. Bertan agertzen dira euskaldun frantses bat —azeri harrapatzailea bera— eta gipuzkoar bat. Biek Peru bizkaitarraren aurrean otoitzak beren euskalkian egiten diren bezala esaten dituzte.

Frantsesak, bada, hunela esaten du: "Sinhesten det (?) Jainko Aita bothere guzia duena baithan, zeruaren eta lurra-  
ren kreatzallea. Eta Jesukristo aren seme bakar gure jauna baithan... Sinhesten dut Izpiritu Saindua baitan" (6).

Gipuzkoarrak, berriz, hunela dio: "Sinesten det Aita Jan-  
goiko guziz poderosoan... Eta bere Seme bakar Jesu Kristo-  
gan... Sinisten det Espiritu Santuagan..." (7).

(2) Mexico-n, 1686. urtean.

(3) TAV, 165 or.

(4) Ikus "La más antigua historia de Aránzazu", *Scriptorium Victoriense* 1965, 150 or.; I. OMAECHEVARRIA, *Boletín de Amigos del País* 1956, 191-195. Taket tartean dagoena geroago esku ezezagun batek gainetik ipinia.

(5) *Ontsa hiltzeko bidea*. Ed. Jakin 1975; 151 or.

(6) *Peru Abarka*. Diálogo 5.º; Ed. Itxaropena, 146 orrialdean.

(7) 149 orrialdean.

Gero Peru bizkaitarrak bere euskalkian hunela: "Sinistuten dot guztia daikian Aita Jangoikuagan, zerubaren ta lurra-  
ren Egillia. Eta bere Seme bakar Jesu Kristogan... Sinistuten dot Espiritu Santubagan..." (8).

Añibarro, herri mixiolari frantziskotarrak —XVIII. mendeko azkenaldean eta XIX.aren hasieran bizi zenak— obra gotor bat bi liburutan utzi du, titulu hunekin: *Misionari Euskalduna* (argitaragabea). Mixioetako bere predikuak ematen dizkigu bertan. Beste gauzen artean Kredoan dator luze eta hedatsuki azaldua. Hasten da esaten nola hamabi Apostoluak munduan zehar joateko, elkarrengandik alde egin baino lehen, bilkura egin eta Kredoan konposatu zuten, bakoitzak artikulu bana esanez. Pedro hasi omen zen lehenengo, eta hunela esan omen zuen: "Sinisten dot Aita Jangoiko guztia egin leikean, zeruaren ta lurrearen Egilleagan" (9).

Etienne Lapeyre jaunak badu liburu bat berariaz Kredoari eskeinia: *Credo edo Sinhesten dut Esplikatua*; Baiona 1891ean. Bertan irakurtzen dut: "Horra zertako, bere Kredoaren buruan, Apostoluek emais duten: Credo in Deum: Sinhesten dut Jainkoa baitan" (10).

Baina dena esan behar da. Gure literatura zaharrean eza-  
gutzen dut lekukotasun bat, esanmolde hunetarik apartatzen dena. Joanes Etxeberriek *Noelak* liburuan badu olerki bat: "Kredoan eskaraz". Bertan hamabi Apostoluak azaltzen dira Kredoan konposatzen eta bakoitzak artikulu bana esaten du. Huna San Pedrok dioena: "Sinhesten dut Iainko Aita ahal guztitakoa, zeñak kreatu baititu zeru-lur-itsasoa". San Ioa-  
nek: "Nik halaber sinhesten dut Iesus Haren Semea, zeñak reparatu baitu gizonaren kaltea". San Mateok: "Nik oraño sinhesten dut Espiritu Saindua, Aita eta Sainduaren (Semearen) ganik prozeditua" (11).

Lizarraga Elkanokoak ere baditu bertso moduko batzuk kristau bidea fededunari erakusteko eginak. Lehen bertsoak hunela dio: "Jangoikoa sinhetsi, onetsi ta adoratu: ezperen,

(8) 151 orrialdean.

(9) *Misionari Euskalduna*, 2. liburua, 352 orrialdean.

(10) 55 orrialdean.

(11) *Noelak*. Ed. 1970; 37 orrialdean.



obe ezpazina munduratu" (12). Egia esateko, lekukotasun hunek ez du indar handirik, zeren hemen sinetsi beste aditz batzuekin bait dator, eta orduan normala da osagarri berbera guztientzat ematea.

Agian egongo da oraino beste salbuespenik. Baina lehengo Kristau Dotrina eta ikasbideetan ez dut uste.

Ikusi dut *Baionako Dioşesako Katixima*, Mame-k 1948.ean aterea. Han Kredoa hunela dator: "Sinesten dut Jainko Aita botere guzia duena baitan, zeruaren eta lurraren Kreatzalean; eta Jesu-Kristo, haren Seme bakhar, gure Jauna baitan... Sinesten dut Izpiritu Saindua baitan. "Eta gero: "Eliza katoliko sainduan, Sainduen partaliertasunean; bekatuen barkamenduan; haragiaren phiztean; bethi iraunen duen bizitzean. Halabiz".

Urte berean *Elizako Liburua* izenaz atera zen meza-liburu bat. Egile-izenik gabe dator, baina Lafitte jaunak egina dela uste dut. Mezako Kredoa hunela dator bertan: "Sinhesten dut Jainko Aita bothere guzia duena baitan, zeruaren eta lurraren kreatzailean. Eta Jesu Krixto, haren Seme bakhar gure Jauna baitan..." eta abar. (13).

Intza-r Damaso euskaltzainak Kristau Ikasbidearen Azalpena atera zuen Iruinean 1924.ean. Han hunela irakurtzen da: "Siñisten det Jaungoikogan" (14).

Ikusi dut, baita ere, Iruineko Lenbiziko Jaunartzerako Kristau Ikasbidea, 1935.ean agertua. Kredoa hunela ematen da: "Sinesten dut Jaungoiko Aita, guzia dezaken, zeruaren eta lurraren egillearen baitan (eta mako artean: *egilleagan*), eta Jesukristo, bere Seme bakar, gure Jaunaren baitan, zein kontzebitua izan zen... Sinesten dut Espiritu Santuaren baitan, Eliza Santa Katolikoan, Santuen alkartasunean, pekatuen barkazioan, aragiaren piztean, betiko bizitzan. Amen".

1921.urtean Gasteizko eliz barrutian Kristau Ikasbide berri bat azaldu zen, euskera aldetik arras zuzendua eta aldatua. Ikasbide hunetan, bada, Kredoa era hunetara dator: "Sinisten det Jaungoiko Aita alguztidun, zeru-lurren egillea, ta

(12) *Urteko Igande guztietarako Platikak*. Latinezko hitzaurre ondoko orrialdean.

(13) 20 or.

(14) 30 or.

bere Seme bakar Jesukristo gure Jauna... Sinisten det Espiritu Santua, Eliza Santu, Katolikua, Santuen alkartasuna" ...eta abar. Hemen, bai, sinetsi-k beti du osagarri arteza, nominatibo edo pairuzko kasua, alegia.

Geroztik, "sinetsi Jainkoa" esanmolde hau, bai Liturgian eta bai Bibliako itzulpenetan ere gutxi-asko sartua ikusten dugu.

Itbargutzik ere bere liburuan hunela dakar: "Siñisten dot Jaungoiko Aita" (15).

Orixe-ren *Urte Guziko Meza Bezperak* 1949an agertzen dira. Mezako Kredoan hunela itzultzen du: "Siñesten dut Jainkoa", etab.

—oOo—

Bibliako liburuetan, "sinetsi" aditzaren erabilkerak aztertzeke, San Joan da batez ere kontutan hartu behar dena. San Joan-en ebanjelioan bakarrik —San Joanen beste idazkiak alde batera utziz, beraz— *credere* = sinetsi aditza 98 aldiz dator.

"Sinetsi" aditza datibozko osagarriaz 19 aldiz ageri da: sinetsi Jainkoari, Kristori, Moisesi, profetei, obrei, Eskriturari, etab. Erabilkera hunekin fedean den fidantziatzko alderdiari ematen zaio kasu.

"Sinetsi... dela": "Jesukristo Jainkoaren Semea dela", eta abar: era hunetara erabilia 12 aldiz agertzen da. Erabilkera hunekin fedean badirela sineskai konkretu eta jakin batzuk, esaldi edo formula batzuetan mami daitezkeenak, aditzera ematen da.

Beste batzuetan "sinetsi" soilik agertzen da, bat ere osagarririk gabe (33 aldiz).

Bainak San Joanek gogoko duen erabilkera, maizenik enplegatzen duena, beste hau da: *Credere in Deum. Pisteuo eis ton Theon*. Erabilkera mota hau 36 aldiz agertzen da (16).

Maiz pentsatu da erabilkera guzti hauk gauza bat eta bera esan nahi dutela, baina ez da hala. "Credo in Deum",

(15) *Siñiskaiak*, Bilbao 1958; 53 or.

(16) Kontu hauk *Dictionnaire de Spiritualité* delakotik hartzen ditut, sub verbo *Jean*, col. 225.



esaldia muntatzeko manera bitxi hunekin hunako hau aditzera eman nahi da: fedean "engagement" edo atxikidura bat badela; fedea ez dela jaun batek —adibidez, Jainkoak— esandako gauzak egiazat edukitzea bakarrik. Hori ere bada, noski. Baina hortaz gainera norbere buruaren emaitza bat ere bada. Beraz, pertsona osoaren Jainkoagana itzultze bat. Oldar bat, abiadura bat, gizon osoa, den guztia, Jainkoagana joatea eta Hari bere atxikimendua eskeintzea, eta Harengan jartzea, eta Harengan finko eta fermo egotea: hori.

San Paulok, bere erara, beste formula batekin agertzen du hau: "in Christo". Fededuna Kristorengan jarria eta finkatua dago, Harengan ezarria bezala bizi da.

Gure artean, Bibliaren itzultzaile zaharrek zintzoki errespetatu dituzte matiz edo ñabardura hauek. Gehiagi ez luzatzeko, pasarte bat, adibide bezala, ikusiko dugu (lehen aipatu dudan hura berbera).

Jesusek galdetzen dio berak sendatu duen itsuari: "Tu credis in filium Dei?" (Jo 9,35). (Hemen oharpen bat egin beharra dago: beste kodize batzuetan "in Filium hominis" ageri dela. Eta irakurpen desberdin hau pasatu da gero euskal itzulpenetara ere).

Leizarragak hunela dakar: "Sinhesten duk hik Iainkoaren Semea baithan?" (17)

Haraneder-ek: "Sinhesten duzu Iainkoaren Semea baithan?" (18).

Duvoisin-ek: "Sinhesten duzu Jainkoaren Semearen baithan?" (19).

Leon Leon-ek: "Jainko Semearen baitan baduzu sineste?" (20).

Hemengo aldekoek ere, behintzat zaharrek, beti errespetatu dute San Joanen itzulika berezi hau.

Aita Uriarte-k hunela itzultzen du: "Sinisten dezu zuk Jaungoikoaren Semeagan?" (21).

(17) *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria* (1571 urtekoa).

(18) *Iesu-Christo gure Jaunaren Testament Berria*; Baionan 1855.

(19) *Bible Saindua*; Londres 1859-1865.

(20) *Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua*; Ustaritz, 1946.

(21) Biblia osoaren itzulpena (argitaragabea).

Baina Olabideren itzulpenean baztertua izan da erabilke-  
ra hori, eta beste era batera muntatzen da esaldia: "Giza  
semearen sinestea bai alduzu?" (22).

Orixe-Kerexeta-Zugastiren izenekin atera zen Itun  
Berriak: "Sinisten al dezu Gizonaren Semea?" (23).

Aita Fernando Mendizabalen itzulpenean errespetatzen  
da San Joanen itzulika berezia: "Sinisten al duzu zuk Jain-  
koaren Semeagan?" (24).

Ez noa dokumentazio gehiago aipatzera. Zer-nolako egoe-  
ra sortu den gure artean jakiteko, aski dela uste dut.

—oOo—

Henri de Lubac jaunak badu liburu bat: *La Fe Cristiana*  
(25). Eta liburu horretan bada kapitulu bat: "Los solecismos  
cristianos"; hau da: hizkuntzaren legeak hautsiz, kristauak  
asmatu zituzten itzulika eta esanmolde bitxiak, hitzen eta  
aditzen enplegu berriak. Latin hizkuntzaren gramatikalaria  
eta erretorika maisuek hoben hau egozten zieten kristauei:  
hizkuntzaren erregelak ez zituztela behar bezala gordetzen.  
Eta, dirudienez, kristauak asmatu zuten berrikeria hoietarik  
bat izan zen errejimen bitxi hau: *Credere in Deum, in Chris-  
tum*, izena akusatibotan ipiniaz eta joera edo norakoa adie-  
razten duen preposizio hori aurrean duela. Baina asmazio  
hori ez zen arrazoi gabekoa. Kristau fedea zerbait berria izan  
zen, ordura arte ez bezalako zerbait, zerbait apartekoa; eta  
fededunak bere esperientzia berri hau nolabait adierazteko,  
itzulika horretara jo zuen. Lehen esan dugun bezala, *Credere  
in Deum* esanmoldeaz, nolabait aditzera ematen da gizonaren  
pertsone osoa Jainkoagana itzultzen dela, eta Hari osoki ema-  
ten zaiola. Kristau fedearen orijinaltasuna azaltzeko guztiz  
jatorra da, bada, itzulika hau.

Zilegi izan bekit San Agustinen obretarik hartutako pasar-  
te bat aipatzea. Hunela dio: "Kristogan sinesten baduzue,  
Kristori sinestuko diozue. Hari sinestea ez da oraino Haren-

(22) *Itun zâr eta berria*; 1958, Bilbon.

(23) *Itun Berria*; Donostia, 1967.

(24) *Lau Ebanjelioak*; 1961.

(25) Ediciones Fax, Madrid, 1970.



gan sinestea. Zer da, bada, Harengan sinestea? Fedea dela medio, Hari buruz abiatua egotea; fedea dela kausa, Hura maitatzea; fedea dela bide, Harengana jotzea eta Haren mienbroekin bat eginik egotea" (26).

Fedea, fedeko aktoa, aitzingibel asko eta ikusalde jori asko dituen errealtate bat da, beraz. Baina gure mende hunen aitzin-aldean izan da teologi eskola bat, joritasun horrezaz kontu guti eginik, halako sistema idor-zurrun batean hertsia eta kiribildua egon dena. Eta orduan itzal handiko ziren teologu batzuek sistema hori ontzat ematen zuten, hala nola, Bainvel, Billot, Harent eta beste anitzek. Eskola horren arabera, fedea sineskai batzuk egiazat edukitzea izango litzateke —Jainkoaren autoritatea oinarritzat hartuz, hori bai—, eta deus ez gehiago. Hori ere bada, noski, baina hori baino gehiago ere bai. Jainkoaren, Kristoren pertsona bera onartzen dut fedean, eta ez bakarrik esaldi batzuk. Horregatik esaten du J. Trütsch jaunak: "Fedearen azalpen hori erabat faltsoa dela ezin esan daiteke, baina azalpen horretan fedearen irudia kaxkartua ageri dela: hori bai" (27).

Teologi eskola hunen eraginak izan ote du zer-ikusirik gure artean obratu den esaldi aldaketa hunetan? Nik ez dakit, baina pentsatzekoa izango litzateke. Seguru asko ez zen izango teologi eskola bakarrik. Teologi eskola eta euskara arroz-tzat jotzen zen kutsu guztitarik garbitu nahia ere bai.

—oOo—

Egia esan, Teologi arrazoiek ez lukete hemen asko balio-ko, baldin hizkuntzan berean egiten den enplegua eta usarioa bestelakoa balitz. Esan nahi dut: teoriak alde batera utzirik, eta bai joan denboretako lekukotasunak ere, euskalduna parra-parra mintzo denean nola mintzatzen den ikusi beharra dago. Euskaldunak, bada, ene ustez, esaten du: Hunek edo horrek ez du Jainkoagan sinesten, eta ez: Ez du Jainkoa sinesten.

(26) Tractatus 39 in Joan., n. 6.

(27) "Explicación teológica de la fe"; *Mysterium Salutis* I, 928.

Lafitte jaunak bere Gramatikan, Sintaxia aztertzerakoan, esaldi hau era hunetara ematen du: Sinesten dut Jainkoa baitan = je crois en Dieu (28).

Esanmolde horrek erro sakonak eginak ditu gure hizkuntzan, bai idatzian, bai mintzatuan. Eta ezin zokora daitekeela dirudi.

Egia da, hasiera batean, "sinetsi" aditzaz inesibo kasua erabiltze hori Jainko, Kristo eta Izpiritu Sainduarekin bakarrik erabiltzen zela; baina gero bestetara ere zabaldu zen. Gure Aita Lasak kontatzen du, behin, Zeraingo baserritar xeble batek, bere haserre bizian, hauxe esan ziola: "Lehen apaizetan ez nuen sinesten; prailleetan, bai. Orain ez apaizetan eta ez prailleetan".

Labur, eta bukatzeko: Sinetsi-k baditu erabilkera arrunt batzuk. "Hau edo hori sinesten dut". Edo "Huni edo hari sinesten diot". Edo "Sinesten dut hau hunela edo horrela dela", eta abar. Baina hoietaz gainera, sinetsi-k badu beste erabilkera bat, gure euskeran sustrai sakonak dituena: "Sinesten dut hunengan edo harengan". Erabilkera hunetan, nolabait esateko, sinetsi-ren esanahi azkarra, bortitza agertzen da; eta hain zuzen, erabilkera hau kristau fedearen orijinaltasuna adierazteko propio eta berariaz asmatua dela esaten digute puntu hau aztertu dutenek.

Beste esanmolde horretan, berriz (Sinisten det Jainkoa), kristauak ez du aurkitzen bere fedeko esperientziaren adierazpen oso-egokia.

Hoiek hola, itzulika berezi hau (Sinesten dut Jainkoagan edo Jainkoa baitan) zokora ote daiteke kristau fede horren aitorra egite orduan, presiski? Eta egin ote daiteke hori hizkuntzari berari ere irain eta bortxa egin gabe? Galdez diot.

---

(28) *Grammaive Basque*, n.º 816. "Le complément d'objet indirect se trouve à l'*inessif* avec quelques verbes comme *fidatu*, "se fier à"; *sinetsi*, "croire en"; *parte hartu*, "prendre part à"; *pentsatu*, "penser à"; *jakin*, "être au fait de"; *ari izan*, "s'occuper de", etc. (Id. *ibid.*)